



RASFF-EKO ALERTAK ETA JAKINARAZPENAK

3. LAUHILEKOA


elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

2005. urteko **hirugarren lauhilekoan**, Europako Informazio Azkarreko Sistemak (RASFF) guztira **807** alerten eta jakinarazpen berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura-iturriei dagozkien portzentajeak hurrengoak dira:

Kutsadura-iturriak	Portzentajea
Mikotoxinak / biotoxinak	% 31,5
Kutsadura kimikoa	% 30,5
Kutsadura biologikoa	% 29
Metal astunak	% 4,5
Pestiziden hondakinak	% 4,5




Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasuen **%94an**, kutsadura **Aflatoxinek** eragin dute eta, horrelakoetan, **pistatxoak** kutsaduren % **30,5** eragin du. Bestalde, kasuen **%80an** pistatxoak **IRANetik** zetozen. Bigarren produktu garrantzitsua **kakahuetea** da. Honek aflatoxinek eragindako kutsaduren **%25** eragin ditu, eta **Brasil** izan da jatorrizko herrialdea kasuen **%32an**.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.k** kutsaduren % 49 eragin ditu: Kutsaduren % 37 haragien artean gertatu dira, eta %24 hegaztietan eta arrautzetan. Kasu bietan, eta produktu bietarako Europa izan da jatorrizko herrialdea kasuen % 84an. **Listeria monocytogenesek** kutsaduren %22 eragin ditu. Kutsadura horien eragileak izokina eta marrazoa izan dira %56an, eta gazta %25ean. Kutsaturiko arrainen %50 Vietnam eta Danimarkakoak ziren; eta kutsatutako gaztak, aldiz, Europakoak %100ean.

Kutsadura kimikoari dagokionez, kasuen %51n Koloragarriak eta Gehigarriak izan dira eragile nagusiak, gehigarriak kasuen %38an errudunak izanik eta mermeladak %23an, eta horien %82 Europakoak izan dira. Bestalde, Sulfitoak izan dira kutsadura kimikoen eragileak, kasuen %14an; eta horien %65ean, ganba brasildarrak izan dira eragile zuzenak %41ean.

Mikotoxinak	254	Aflatoxinak	239 (%94)	pistatxoak kakahueteak	73 (%30,5) 59 (%25)	Iran Brasil	58 (%80) 19 (%32)
Kutsadura biológica	235	Salmonella sp.	115 (%49)				
		<i>Salmonella sp.</i>	91 (%79)	hegaztiak haragia	23 (%25,5) 22 (%24)	Europa Europa	14 (%65) 20 (%83)
		<i>S. enteritidis</i>	4 (%3,5)	hegaztiak, arrautzak	4 (%100)	Europa	3 (%75) 20
		<i>S. typhimurium</i>	20 (%18)	haragia	20 (%100) 19	Europa	(%100)
		Listeria	52 (%22)	izokina	(%36,5)	Danimarka	11 (%60) 10
		monocytogenes		marrazoa	10 (%19)	Vietnam	(%100) 10
				gazta	10 (%19)	Europa	(%100)
Kutsadura kimikoa	246	Koloragarriak Gehigarriak	125 (%51)				
		gehigarriak Sudan kolorea	48(%38)	mermeladak	11 (%23)	Europa	9 (%82)
		1	36 (%29)	espeziak	28 (%78)	Asia	23 (%81)
		Sulfitoak	34 (%14)	ganbak	22 (%65)	Brasil	9 (%41)

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdea hurrengoa izan zen:



Asiari dagokionez, kutsaduren % **20,5ek Iranen** izan zuten jatorria, ondoren **Tailandia %18k**, eta, azkenik, **Vietnam %16k**, hurrenez hurren. **Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien eragin zituzten herrialdeen artean **Turkia (%23)** eta **Alemania (%7)** izan ziren. Eta azkenik, **Amerika** kontinentearen barruan, bi nabarmen du ziren: **Brasil** (jakinarazpenen % **52**) eta **Argentina (%20,5)**.

Azkenik, Europako Erkidegoaren barruko jakinarazpenen portzentajea hurrengoa izan zen:

